

## EGUNSENTIRA ARTE

Joana Garmendia

*Anoeta, 17 urte*

Arrastiriak zure izena hartu zuen  
ohituraz eta lasaitasunez,  
hodei azpian,  
errainu artean,  
zure eskua gertu izan dut beti.  
Landareen usaina  
eta zure ahotsa  
bat izatera heldu ziren,  
harrizko eserlekuak lekuko  
eta zukanako maitasuna arrazoi nituelarik.  
Baina gaur,  
Eguzkia moteldu denean,  
ez zaitut lore artean aurkitu.  
Hitz egin dizut, sinets eidazu,  
baina haizeak marmarrez erantzun dit.  
Eskua hartu nahi izan dizut,  
baina airea dut laztandu.  
Burua makurtu  
eta erregu heze,  
gazi,  
goibela  
luzatu dizut.  
Baina ez zara itzuli.  
Argi epelaren pean  
zure falta onartu behar izan dut,  
eta orain, zoritxarrez,  
gauak hutsuneak estaltzean soilik

hitz egin diezazuket,  
haizeak erantzungo didan beldurrik gabe,  
zu hemen ez zaudela ahazturik.  
Eta ez dut negarrik egingo,  
ez egunsentira arte.

Izarrak nora, ni neu hara.  
Oraindik ere gogoan zaitut, amona.

**“Begiek galdua dutena, bihotzak temati gordeko  
du betiko.”**